

# IKASTETXEENTZAKO **HEZKUNTZA PROGRAMA**

# **PROGRAMA EDUCATIVO** PARA CENTROS ESCOLARES

GETXOKO
**INGURUMEN ARETOA**

**AULA AMBIENTAL**
DE GETXO

KALTEA LEPOAN DAGIANAK BIZARRA
Getxo
bizi ezazu

Ingurumen Aretoa Getxo

Larrañazubi Kalea, 12B
48992 Getxo, Bizkaia
688 88 35 96

info@ingurumenaretoagetxo.eus
www.ingurumenaretoagetxo.eus

# Ikastetxeei zuzendutako hezkuntza programa Getxoko Ingurumen Aretoan

Getxoko Udalak, Ingurumen Aretoaren bitartez, hezkuntza programa zabala eskaintzen die ikastetxeei.

Getxoko Ingurumen Aretoak dituen helburu nagusiak ingurumen sentsibilizazioa eta gure inguruaren garapen iraunkorra dira. Bere kokapena ezin hobea da helburu horien lorpenean, izan ere, alde batetik Larrañazubi-ko zabortegi zaharraren eta Getxoko Hondakinen Transferentzi Gunearen ondoan gaude. Honek hondakinen eta kontsumo arduratsuaren gaiak bertatik bertara lantzeko aukera paregabea ematen digu. Beste alde batetik, Bolueko Hezegunea oso hurbil dago ere, Getxoko berdegune nagusietako bat bisitatzeko aukera ematen diguna, biodibertsitate babesgune garrantzitsu bat ezagutuz aldi berean.

# Programa educativo para centros escolares en el Aula Ambiental de Getxo

El Ayuntamiento de Getxo, a través del Aula Ambiental, ofrece un amplio programa educativo para los centros escolares.

El objetivo principal del Aula Ambiental de Getxo es la sensibilización ambiental y el desarrollo sostenible de nuestro entorno y su situación es idónea para dicho objetivo, ya que por un lado nos encontramos al lado del antiguo vertedero de Larrañazubi y el actual Centro de Transferencia de Residuos de Getxo. Esto nos ofrece la excelente oportunidad de trabajar *in situ* la temática de los residuos y del consumo responsable, entre otros. Por otro lado, el Humedal de Bolue también está muy cerca, brindándonos la posibilidad de conocer de primera mano una de las principales zonas verdes de Getxo, refugio de una importante biodiversidad.

# PROGRAMA DIDAKTIKOAK

# PROGRAMAS DIDÁCTICOS

1. **BIO-URA**
   BIO-AGUA
2. **ZURE BIZITZA BIRZIKLATU**
   RECICLA TU VIDA
3. **HEZEGUNETIK YINKANA**
   YINCANA POR EL HUMEDAL
4. **GURE AZTARNA... EKOLOGIKOA**
   NUESTRO RASTRO... ECOLÓGICO
5. **INGURUNEKO ZUHAITZAK**
   ÁRBOLES DE NUESTRO ENTORNO
6. **GURE PAISAIAK: GEOBIODIBERTSITATEA**
   NUESTROS PAISAJES: GEOBIODIVERSIDAD
7. **LURRA ZAINTZEN**
   CUIDANDO LA TIERRA
8. **ELIKADURA JASANGARRIA**
   ALIMENTACIÓN SOSTENIBLE

**ESPERIMENTAZIO ETA BERRIKUNTZA GELA**
AULA DE EXPERIMENTACIÓN E INNOVACIÓN

| Programa | Haur Hezkuntza Educación Infantil | LH 1. zikloa 1er ciclo E. Primaria | LH 2. zikloa 2º ciclo E. Primaria | LH 3. zikloa 3er ciclo E. Primaria | DBH 1. zikloa 1er ciclo ESO | DBH 2. zikloa 2º ciclo ESO | Batxillergoa Bachillerato | Formakuntza zikloak / Ciclos Formativos |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | ● | ● | ● | ● | ● | ● | ● | ● |
| 2 | ● | ● | ● | ● | ● | ● | | |
| 3 | ● | ● | ● | ● | ● | ● | | |
| 4 | ● | ● | ● | ● | ● | ● | | |
| 5 | ● | ● | | | | | | |
| 6 | ● | ● | ● | ● | ● | ● | ● | ● |
| 7 | ● | ● | ● | ● | ● | ● | ● | ● |
| 8 | ● | ● | ● | ● | ● | ● | | |
| **Esperimentazio eta berrikuntza gela** Aula de experimentación e innovación | ● | ● | ● | ● | ● | ● | ● | ● |

## 1 PROGRAMA

### Bio-Ura
### Bio-Agua

**Bolueko hezegunetik ibilbide baten eta ondorengo ekintza baten bidez, Aretoan egiten dena, hainbat aspektu lantzen dira biodibertsitatearekin, urarekin eta ingurumenean gizakien jarduera batzuek dauzkaten eraginarekin erlazionatuta daudenak.**

Mediante un itinerario por el humedal de Bolue y una posterior actividad en el Aula Ambiental se trabajan diversos aspectos relacionados con la biodiversidad, el agua y el efecto que en el medio ambiente generan ciertas actividades humanas.

## 2 PROGRAMA

### Zure bizitza birziklatu
### Recicla tu vida

**Larrañazubiko zabortegi zaharraren eta Getxoko Hondakinen Transferentzi Gunearen bisitaren bidez hondakinen udal kudeaketa ezagutuko da. Helburua gure kontsumitzeko moduaren ondorioak aztertzea da. Bisita amaitzeko, Ingurumen Aretoan tailerra egingo da.**

A través de una visita al antiguo vertedero de Larrañazubi y a la actual Planta de Transferencia de Getxo se realiza una aproximación al tema de la gestión urbana de los residuos. El objetivo es analizar las consecuencias de nuestro modo de consumo. Para finalizar la visita se realiza un taller en el Aula Ambiental.

## 3 PROGRAMA

### Hezegunetik yinkana
### Yincana por el humedal

**Bolueko Hezegunetik ibilbide bat egingo da froga eta jolas ezberdinak garatuz, biodibertsitatearekin eta Hezegunearen iraganarekin baita etorkizunarekin ere erlazionatuta dauden hainbat aspektu lantzeko. Bisita amaitzeko Ingurumen Aretoan tailerra egingo da.**

Mediante un itinerario por el humedal de Bolue, estructurado en distintas pruebas y juegos, se trabajan varios aspectos relacionados con la biodiversidad, historia y futuro del humedal. Para finalizar el itinerario se realiza un pequeño taller en el Aula Ambiental.

## 4 PROGRAMA

### Gure aztarna... ekologikoa
### Nuestro rastro... ecológico

**Getxoko Aretoaren alderdietatik eta Getxoko kale batzuetatik ibilbide honen bitartez, aztarna ekologikoa kontzeptua sakontzen da. Kontzeptu hau gure karbono aztarna murrizten edo handitzen duten eguneroko ekintzak desberdintzeko erabiltzen da.**

A través de este itinerario por las inmediaciones del Aula Ambiental y parte del casco urbano de Getxo, se profundiza en el concepto de huella ecológica. Este concepto se utiliza para diferenciar acciones cotidianas que aumentan o disminuyen nuestra huella de carbono.

5 PROGRAMA

## Inguruneko zuhaitzak
## Árboles de nuestro entorno

**Getxoko Aretoaren alderdietatik haur hezkuntza eta lehen hezkuntzako lehenengo ziklora zuzendutako programa honetan gure ekosistemen zuhaitzen garrantziari buruz hausnarketa egingo da. Bisita amaitzeko, Ingurumen Aretoan tailerra egingo da.**

Mediante este programa dirigido a educación infantil y primer ciclo de primaria que se desarrolla por las inmediaciones del Aula Ambiental, se realiza una reflexión acerca de la importancia de los árboles en nuestros ecosistemas. Para finalizar, se realiza un taller en el Aula Ambiental.

6 PROGRAMA

## Gure paisaiak: Geobiodibertsitatea
## Nuestros paisajes: Geobiodiversidad

**Ibilbide honen helburu nagusia udalerriko aspektu desberdinak ezagutzea da, biodibertsitatearen aldetik baita geologia eta paisaiaren aldetik ere, Getxo osatzen duten ekosistema desberdinetan arreta jarriz. Ingurunean gizakiaren jarduera batzuek duten inpaktua aztertzen da. Bisita amaitzeko Ingurumen Aretoan tailerra egingo da.**

El objetivo principal de este itinerario es conocer distintos aspectos del municipio de Getxo, tanto desde la perspectiva de la biodiversidad como de la geología y el paisaje, atendiendo a los distintos ecosistemas que conforman el municipio. Para finalizar se realiza un taller en el Aula.

7 PROGRAMA

## Lurra zaintzen
## Cuidando la tierra

**Ingurumen Aretoaren alderdietatik ibilbide baten bidez, eta ondorengo tailerraren bidez, ikasleen artean gure eguneroko jardueren bidez ingurumena zaintzearen garrantzia zabalduko da.**

Este itinerario en las inmediaciones del Aula y posterior taller tiene como objetivo difundir entre el alumnado la importancia de conservar nuestro entorno a través de nuestras acciones cotidianas.

8 PROGRAMA

## Elikadura jasangarria
## Alimentación sostenible

**Programa honen bitartez elikadura-burujabetza bezalako edukietan barneratuko gara, elikadura jasangarria gure ingurua ez suntsitzea eta baliabide naturalak ez agortzea bermatzen duena hori dela nabarmenduz, eta gainera, modu orekatuan elikatuz.**

Mediante este programa desarrollaremos conceptos como el de la soberanía alimentaria, haciendo hincapié en el hecho de que una alimentación sostenible es aquella que nos asegura poder seguir alimentándonos sin agotar los recursos y sin destruir el medio, todo ello basándonos además en una alimentación equilibrada y variada.

## Esperimentazio eta Berrikuntza gela

Ingurumen Aretoak esperimentatzeko tailer ugari eskaintzen ditu, ibilbide desberdinekin konbinatu daitezkeenak. Mahaigaineratzen ditugun helburuak hurrengoak dira:

- Ikasleak naturarekin modu esperimental eta berritzaile batean harremandu.
- Iraunkortasun irizpideak jarraituz kurrikulumaren edukiak garatzeko aukera ematen duen eremua eskaintzea.
- Irakasleekin komunikazio irekia mantentzea, eskola bakoitzaren beharretara egokitzeko.

Tailerrak gela itxi batean egiten direnez (egurrezko etxean), eguraldi txarrarekin ere garatu daitezke.

### Nola antolatzen ditugu tailerrak?

Ikastetxea Ingurumen Aretoko hezkuntza taldearekin harremanean jartzen denean, irakasleek bisitarako planteatzen dituzten helburuei egokitutako eskaintza sortzen da. Ondoren, ikasleek esperimentazioaren bidez ingurumen-kontzeptuak barneratzea bermatzen duen proposamena burutzeko etengabeko komunikazioa mantentzen da.

Adibide batzuk:

- Xaboia egiteko tailerra erabilitako olioa berrerabiliz.
- Ortu bertikala.
- Paper birziklatua egiteko tailerra.
- Uraren bitartez esperimentatzeko tailerra.
- Zarata esperimentazio tailerra.

## Aula de Experimentación e Innovación

El Aula Ambiental ofrece diversos talleres de experimentación que pueden combinarse también con distintos itinerarios. Los objetivos que planteamos son los siguientes:

- Desarrollar en el alumnado la aproximación a la naturaleza de una manera experimental e innovadora.
- Ofrecer un espacio en el que se puedan desarrollar, a través de talleres experimentales, contenidos del currículum con criterios sostenibles.
- Mantener abierta la comunicación con el profesorado para adaptarse a las necesidades de cada centro escolar.

Los talleres se llevan a cabo en un aula cubierta (aula de madera), por lo que se pueden desarrollar incluso con meteorología adversa.

### ¿Cómo planificamos los talleres?

Una vez que el centro escolar se pone en contacto con el equipo educativo del Aula, se crea una oferta adaptada a los objetivos planteados por el profesorado para la visita. Tras esto, se mantiene una comunicación continua para diseñar una propuesta en la que el alumnado interiorice diferentes conceptos ambientales a través de la experimentación.

Algunos ejemplos:

- Taller de jabón mediante la reutilización de aceite usado.
- Huerto vertical.
- Taller de elaboración de papel reciclado.
- Taller de experimentación con agua.
- Taller de experimentación del ruido.

# BISITARI BURUZKO INFORMAZIOA

- **Bisita astelehenetik ostiralera egin ahal izango da, euskaraz ala gazteleraz.**
- **Autobusa eta janaria ikastetxearen kontu izango da. Gomendagarria da ikasleek ura eta janaria ekartzea.**
- **Beharrezkoa da jantzi eta oinetako egokiak, arkatza eta borragoma ekartzea.**
- **Taldeak 50 ikasle izan beharko ditu gehienez (Haur Hezkuntzaren kasuan 30 ume). Talde handiagoentzat badago bestelako bisita-formatua; horren informazioa jasotzeko beharrezkoa da Ingurumen Aretoarekin kontaktatzea.**
- **Etorrera 10.00etan izango da eta iraupena Unitate Didaktikoaren eta eskolaren beharren araberakoa izango da.**

# INFORMACIÓN SOBRE LA VISITA

- La visita podrá realizarse de lunes a viernes, en euskera o en castellano.
- El autobús y la comida correrán a cargo del centro escolar. Se recomienda que el alumnado traiga agua y almuerzo.
- Es necesario traer ropa y calzado adecuados y acordes a la época del año, así como lápiz y goma de borrar.
- El número máximo de alumnas y alumnos será de 50 (30 en Educación Infantil).
  Para grupos más numerosos existen otros formatos de visita, de los que es posible informarse contactando con el Aula Ambiental.
- La hora de llegada será a las 10:00, y la duración será variable en función de la Unidad Didáctica elegida y la disponibilidad del centro escolar.






## NON DAGO?

**Getxoko Ingurumen Aretoa Larrañazubiko zabortegi zaharraren lursailetan kokatutako baserri birgaituan kokatzen da. Bolueko Hezegunetik oso hurbil eta Hondakinen Transferentzia Zentrotik distantzia laburrera kokatuta, hezegunera zuzendutako errepidetik iristen da, hots, hezegunetik 800 metrotara.**

## ¿DÓNDE ESTÁ?

El Aula Ambiental de Getxo se ubica en un caserío rehabilitado dentro de los terrenos del antiguo vertedero de Larrañazubi. Situado muy cerca del Humedal de Bolue y a escasa distancia del Centro de Transferencia de Residuos, se accede por la carretera que lleva al humedal y a 800 m de éste.

## ORDUTEGIA

**Astelehenetik ostiralera:**
**10:00etatik 14:00etara eta 15:30etatik 17:30etara.**

**Larunbata, igande eta jaiegunetan:**
**10:00etatik 14:00etara.**

**Abuztuan itxita.**

## HORARIO

Lunes a viernes:
de 10:00 a 14:00 h y de 15:30 a 17:30 h.

Sábados, domingos y festivos:
de 10:00 a 14:00 h.

Agosto cerrado.

## EKIPAMENDUAK

**ERAIKIN NAGUSIA**

Ingurumenari buruzko erakusketa etengabea: panelak, ikus-entzunezkoak... Goiko solairuan bulegoak eta erabilera anitzeko aretoa.

**ZUREZKO ERAIKIN ERANTSIA**

Esparru diafanoa jarduerak burutu ahal izateko. Tailerra eta zerbitzuak eskaintzen dira.

**PIKNIK ETA AISIARAKO GUNEA**

Mahaiak, eserlekuak eta haurrentzako jokoak.

**LORATEGI BOTANIKOA**

Getxoko ekosistemen adierazgarria den landaredia.

## EQUIPAMIENTOS

**EDIFICIO PRINCIPAL**

Exposición permanente sobre medio ambiente: paneles, audiovisuales... En la planta superior oficinas y aula de usos múltiples.

**EDIFICIO ANEXO DE MADERA**

Espacio diáfano para la realización de actividades. Consta del aula taller y servicios.

**ZONA DE PICNIC Y RECREO**

Consta de mesas, bancos y juegos infantiles.

**JARDÍN BOTÁNICO**

Flora representativa de los ecosistemas de Getxo.